

**PETRONOR-EN USTIAPENAREN EMAITZA % 27
GUTXITU DA ETA, FINANTZA SARRERAK BARNE,
170,5 MILIOI EUROKO IRABAZIAK ESKURATU DITU**

<u>EMAITZAK (euroak, milioikoak)</u>	<u>2009</u>	<u>2008</u>
Ustiapenaren emaitza (ondare eraginik gabe)	- 30,1	241,9
	-----	-----
Ustiapenaren emaitza	83,5	115,1
Finantza-emaitza	71,4	28,2
	-----	-----
EMAITZA (zergen aurretik)	154,9	143,3
Irabazien gaineko zerga	15,6	(9,4)
EMAITZA GARBIA	170,5	133,9
	-----	-----

- PETRONOREk 2009ko ekitaldian izan duen ustiapenaren emaitza 83,5 milioi eurokoa izan da. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin erkatuta beherapena % 27koa izan dela. Gutxipen horren arrazoiak fintzearen marjina gertatu den murrizte itzela, eskarian eta nazio mailako merkatuko salmentetan egon den beherapena eta dolarra/euroa parekotasunaren kontrako bilakaera izan dira.
- 2009ko izakinen balorazioaren eragin positiboa aintzat hartu gabe ustiapenaren emaitza negatiboa izango zen, hain zuzen ere 30,1 milioi euroko zenbatekoarekin.
- Hori gorabehera, PETRONOREk 170,5 milioi euroko irabazi garbiak lortu ditu 2009an. Hori finantza-emaitzen eta irabazien gaineko zergaren murrizketaren ondorioz gertatu da.

<u>JARDUERAREN BESTE MAGNITUDE BATZUK</u>	<u>2009</u>	<u>2008</u>
Prozesua (petrolio tonak, milakoak)	9.597	10.789
Salmentak (tonak, milakoak)	<u>9.763</u>	<u>10.612</u>
- <i>Merkatu nazionalera</i>	<i>6.593</i>	<i>7.256</i>
- <i>Atzerriko merkatura</i>	<i>3.170</i>	<i>3.356</i>
Inbertsioak (euroak, milioikoak)	<u>280,4</u>	<u>170,7</u>
- <i>URF proiektuan</i>	<i>248,3</i>	<i>126,4</i>
- <i>Eragingarritasun, segurtasun eta ingurumeneko beste inbertsio batzuk</i>	<i>32,1</i>	<i>43,3</i>

- PETRONORek, errentagarritasun faltagatik, eragiketarik gabe utzi zituen destilazioa egiteko instalazioak eta 2. plantako beste instalazio batzuk. Errentagarritasunaren galera 2009ko irailetik aurrera gertatu zen birfintzearen marjinen eboluzio txarrengatik izan da. Ondorioz 2009an prozesua % 10 baino gehiago murriztu da 2008koarekin konparatuta.
- 2009an murriztu egin dira merkatu nazionalen egin diren salmentak, hain zuzen ere % 10 2008arekin erkatuta. Jaitsiera hori jarduera ekonomikoaren murrizketari lotuta gertatu den eskaeraren ahuleziaren isla da.
- Okerreko testuinguru ekonomiko horren barruan PETRONORen jarduera kostuen euspen zorrotzaren kudeaketari eta finantza-disziplina hertsuari ekiteko ahaleginari doitu zaio, baina inbertsio estrategikoei uko egin gabe. Horien artean funtsezkoa da URF proiektua.
- Une honetan proiektu industrial honen aldeko erronkak birfindegiaren etorkizuneko bideragarritasuna lortzeko gizarte eta erakunde mailako erabateko erantzukizuna erakusten du, beti ere ingurumenarekiko konpromisoa abiaburutzat hartuta.

<u>EGOERAREN BALANTZEA</u> <u>(euroak, milioikoak)</u>		
	<u>2009</u>	<u>2008</u>
Aktibo ez arrunta	804,7	552,5
Izakinak	452,7	333,1
Zordunak	301,1	235,1
Efektiboa eta beste aktibo likido batzuk	92,5	55,8
	-----	-----
AKTIBOA, GUZTIRA	1.651,0	1.176,5
Ondare garbia	677,8	621,5
Pasibo ez arrunta: Hornikuntzak E/Lra eta zerga geroratuengatiko pasiboa	26,3	45,3
Pasibo ez arrunta: Epe luzeko zorrak	414,6	110,2
Pasibo arrunta: Hartzekodunak (epe motza)	532,3	399,5
	-----	-----
PASIBOA, GUZTIRA	1.651,0	1.176,5

- PETRONOREk finantza-egoera oso sendoa du eta bere palanka finantzarioaren ratioa (finantza zor garbia/erabilitako kapitala) % 31,4 da, zentzuzkoa konprometituta dagoen inbertsio-ahaleginari esker.
- Jarrera horrekin, Repsol YPF eta BBK bazkideen laguntzarekin, praktikan erabat dago bideratuta eta bermatuta Fuel-Olioaren Erreduzitzeko Unitatearen finantzaketa. Halaber, proiektuak Europako Inbertsio Bankuaren 400 milioi euroko laguntza du, hala inguruan duen bere garrantzi ekonomiko eta sozialagatik nola ingurumenari dagokionez iraunkorra den proiektuaren izaeragatik.

- Proiektu honek finkatu egiten du PETRONORen birfindegiaren eskema industrialak ingurumenari dagokionez industria iraunkorra eta segurua izateko atazan, etorkizunean irekiko zaigun marko ekonomikoan errentagarritasuna bermatzeko balorea sortuz.

Muskiz, 2010eko apirilak 16